

**175/2022 EBAZPENA, OTSAILAREN 16KOA, DEBABARRENA ESIKO ZUZENDARI GERENTEARENA, DEBABARRENA ESIN ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU BAT ZERBITZU-EGINKIZUNEN/ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN BIDEZ ERAKUNDEEN ARTEAN BETETZEKO DEIALDIA BALIOGABETZEN DUENA.**

Debabarreneko ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 16ko 707/2019 Ebazpenaren bidez argitaratu zen ([www.osakidetza.euskadi.net](http://www.osakidetza.euskadi.net)) erakundeen artean Administrazio eta Kudeaketako erdi-mailako teknikari lanpostu bat zerbitzu-eginkizunen/aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko deialdia.

Unibertsitate-tituluen erreforma (Bologna Plana) indarrean sartu zenetik (horren bidez, lizentziadunen unibertsitate-tituluen eta unibertsitate-titulu diplomatuen arteko aldea desagertu da), titulazioaren eta eskumenen nahastea gertatu da administrazio eta kudeaketako erdi-mailako teknikariaren eta administrazio eta kudeaketako goi-mailako teknikariaren lanpostuen artean, eta hori aztertu eta baloratu egin behar da Osakidetzaren egungo lanpostu funtzionalei buruzko dekretua aldatzeko proiektuan, eta balioetsi beharreko etorkizuneko neurketa-aukeren arteko bat da.

Kautelaz, bi lanpostuen titulazioaren eta eskumenen arteko nahasmen horren ondorioz, lekualdatze ireki eta iraunkorreko lehiaketetako eta 2018-2019 Enplegu Publikoaren Eskaintzako Administrazio eta Kudeaketa Teknikari Ertaineko plazak baztertu dira, hautagaiei eta etorkizuneko esleipenei kalterik ez eragiteko.

Ildo beretik, uste da ez dela zentzuzkoa Administrazio eta Kudeaketako erdi-mailako teknikariaren lanpostua aldi baterako betetzeko prozesurik egitea, behin betiko hornidura-deialdirik ez egitea justifikatu duten arrazoi berberengatik. Beraz, bidezkoa da aipatutako deialdia baliogabetzea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15. artikuluan pertsonalaren arloan eskumenak esleitzen zaizkiolako.

#### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Debabarreneko ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 16ko 707/2019 Ebazpenaren bidez egindako deialdia baliogabetzea, Administrazio eta Kudeaketako erdi-mailako teknikariaren lanpostu huts bat zerbitzu-eginkizunen/aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean eta Debabarreneko ESiren intranetean argitaratzea.

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Mendaron 2022ko otsailaren 16an



Osakidetza  
DEBABARRENA ESI  
OSI DEBABARRENA

**Iz.: Juan Ramón De la Puente Pagola**

**DEBABARRENEKO ESIKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA**

**Zuzendari Gerenteak 345/2017 uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez emandako eskuordetzaz baliaturik**